

# Testua irakurri

Hauxe duzu testua. **Irakurri patxadaz eta segidan dauden galderari erantzun:**

## **Emotikonoek gure elkarrizketak inbaditzen dituzte**

Teklatu edo klavier berriek hitzak irudi "bihurtuko" dituzte. Eskuko telefonoa gure idazteko modua aldatzen ari da. Hitzak laburtu egiten ditugu telefono bidez norbaiti idaztean eta emotikoniak erabiltzen ditugu esan nahi duguna adierazteko.

Baina badatoz aldaketak. Emotikono bat aukeratzen duzunean, telefonoak emotikono horri aurretik lotutako hitz edo esaldi bat baino gehiago proposatuko dizu, eta zuk aukeratu egingo duzu; horrela ez duzu hitz edo esaldi osoa idatzi behar.

Gaur egun ere egiten dute hori eskuko telefonoek testuekin. Zuk mezu bat bidaltzeko hitz bat idazten hasi eta hitz osoa idatzi baino lehen, telefonoak hainbat aukera eskaintzen dizu hitza osatzeko. Eta aukera horiek eskaintzeko gauza da, telefonoak gure idazteko ohiturak aztertzen dituelako. Horrela, mezua idazteko denbora gutxiago behar dugu.

Laster, bertsio berri bat izango dugu eskura. Emotikonoek hitzak ordezkatzeko dituzte, erabiltzaileak hala nahi badu, behintzat. Adibidez: "ze eguzki goxoa" idazten baduzu. "eguzki" hitzaren ordezkari, eguzkiaren emotikonoa jartzeko aukera izango duzu.

Baina, komunikatzeko modu efektiboa eskaintzen dute emotikonoek" Hala dirudi. Horixe diote behintzat adituek. Egoera jakin batzuetan oso eraginkorra dela komunikatzeko bide hori. Adibidez, askotan ez da erraza hitzekin adieraztea daukagun aldartea, nahiz eta idazten trebeak izan. Aldarte hori erakusten duen emotikonoa sakatu, eta hara. denok ulertzeko moduan!

Edo telefono bidez mezua idazten eta bidaltzen ari garela, eta mezua jasotzen, elkarrizketa bat izaten, alegia, eta elkarrizketa amaitu nahi dugula, eta ez dakigula nola egin, bestea mindu gabe. Bada, emotikono bat sakatu, eta listo!

*Zeri buruzkoa da testua?*

- Gure idazteko eran gertatzen ari diren eta gerlatuko diren aldaketei buruzkoa.
- Emotikonoen gehiegizko erabilerari buruzkoa.
- Eskuko telefonoen ezaugarriari buruzkoa.

*Zein da testuak iragartzen duen aldaketa?*

- Emotikono gehiago izango ditugula aukeran gure telefonoetan.
- Gure aldarteari buruz idazteko aukera izango dugula.
- Telefonoek, guk idatzi ahala, hitzez gain, emotikonoak eskainiko dizkigutela, hitzak ordezkatzuz.

Emotikonoek komunikatzeko modu eraginkorra eskaintzen dute?

- Ez, emotikonoak ondo daude kasu batzuetan, baina beti da efektiboagoa hitzak osorik idaztea.
- Adituen arabera, egoera guzti-guztietan, emotikonoak eraginkorragoak dira hitzak baino.
- Hori ematen duela dio testuak.

Mezu bidezko elkarrizketa bati bukaera egokia emateko, zer gomendatzen du testuak?

- Beste persona mindu Gabe egitea, hitzez gain, emotikono bat erantsiz.
- Emotikono bat sakatzea nahikoa dela.
- Agur esatea eta kitto.

Hitz guztiak ordezkatu eta emotikonoak jarri ditugu. Saia zaituz emotikonoak eta esaldiak lotzen, adibidean bezala:

**Ai ene! Bai barregarria! / Pozten naiz, benetan! / Asko maite zaitut, bihotza!**  
**Zorionak! Ondo ospatu eguna. Opari asko jasotzea espero dut! /**



**Kaferik ez, garagardoa nahi dut.**



# HITZEN ORDEZ, EMOTIKONOAK

Testuak dioen bezala, hemendik aurrera, hitz asko emotikonoen bidez ordezkatuko ditugu. Irakurri esaldiak eta saiatu emotikono egokiekkin lotzen.

**Nola zatoz gaur, autoz ala motoz? / Ez al zatoz Josuneren ezkontzara? Ze pena!**

**Azterketa gainditu duzu! Zorionak, ze ona zaren! / Gaur etxean.**

